




BAKEAREN USOA
F MAILA

LUIS PEDRO PEÑA SANTIAGO PAS, Z.G.



Egilea eta data: Nestor Basterretxea, 1988

Deskribapena

Bakearen alde egindako lana, 8 metroko zabalera eta lodiera txikikoa, burdinazko egitura bat da hiru pieza kateatuta zatiuta, poliesterez estalia, hori guztia zuriz margotua.

Burdinak material gisa kanpo indar bat ematen dio eskulturari, ia industriala, hegoak zabalduta dituen uso baten formen dotoretasunarekin kontrastatzen duena.

Hasieran Donostiako Kursaal inguratzen duen pasealekuan kokatua, 1995ean behin-behinean lekualdatu zen, Groseko espigoia eta Kursaal auditorioa eraikitzeko, Aita Donostia plazaren erdira, Anoetako estadioaren aurrean.

2015ean itsasoaren ondora lekualdatu zen berriz, egilearen nahia beteta, zehazki Pedro Peña Santiago pasealekura, Saguesen.

Basterretxearen obra osoa, Chillidaren Haizearen Orrazia eskulturarekin eta Oteizaren Eraikuntza Hutsarekin, hiriko itsas aurrealdean kokatutako eskultura lanen multzoa.

Babes erregimena

1. Babes erregimen orokorra.
Plan Berezi honen F babes mailan sartzearekin loturikoa.
2. Babes erregimen espezifikoa:
 - A. Babestu gabeko elementuak: ez.
 - B. Elementu edo zati iraunkorrak: Bakearen Usoa eskultura.
 - C. Esku hartzeko murrizketa partikularrak: hura mantentzeko behar direnak baimentzen dira, bereziki klimatologiaren ondorioen eragina jaso duen kasuetan, haren kokapen berezia kontuan izanda.